

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako Enplegu Zerbitzuak antolatutako tailerretako ikasleen % 70 baino gehiagok aurkitu zuen lana

Goicoechea lehendakariordeak amaiera eman dio Arbizun zonaldeko 15 langabe prestatu dituen tailerretako bati, Baso Lanen espezialitatean

Viernes, 07 de junio de 2013

Nafarroako Gobernuak hainbat erakunderekin batera sustatutako enplegu-tailerretan parte hartu duten ikasleen % 70 baino gehiagok lana aurkitu du lehen urtean. Adineko pertsoneri eta mendekoei emandako arretan daude laneratzeko portzentaje altuenak.

Lehen lehendakariorde eta Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu kontseilari Lourdes Goicoecheak eta Sakanako Mankomunitateko lehendakari Aitor Karasatorre-k eman diote amaiera gaur goizean Arbizun "Basoko Lanei" buruzko enplegu-tailerrari, eta 6 hilabetez 15 langabe prestatu ditu espezialitate horretan. Nafarroako Gobernuak 163.053 euro eman du tailer horretarako, eta Europako Gizarte Funtzarekin % 50ean kofinantzatutakoa izan da. Sakanako Mankomunitatean egiten den espezialitate horretako bigarren enplegu-tailerra da. Aurreko proiektuaren ondoren, baso-sektoreko 3 enpresa sortu ziren eta 11 pertsonari eman zieten lana.

2011n enplegu-tailerretan parte hartu zuten ikasleen % 70 baino gehiagok lana aurkitu zuen lehen urtean

2011n zehar Nafarroako hainbat udalerritan amaitu ziren 12 enplegu-tailer. Nafarroako Enplegu Zerbitzuan dauden laneratzearen jarraipen-datuen arabera, haietan parte hartu zuten ikasleen % 71,7k lana topatu zuen lehen urtean proiektua amaitu eta gero. Portzentaje altuenak Iruñean antolatu ziren bi tailerrei dagozkie; tailer horiek, alde batetik, adineko eta mendeko pertsonen arretari buruzkoak ziren (% 100), eta bestetik, etxe eta erakundeetan mendekotasun-egoeran dauden pertsoneri emandako arretari buruzkoak (% 86,6).

2012ari dagokionez, 9 enplegu-tailer abian jarri dira eta bertan 135 ikaslek parte hartu dute. Nafarroako Enplegu Zerbitzuak egindako inbertsioa, guztira, 1.463.495,70 €-koa izan da.



Agintariak eta tailerraren arduradunak, parte hartu duten ikasleekin.

Goicoechea lehendakariordeak enplegu-tailer bati amaiera eman dio Arbizun

Lehendakariordeak gaur amaiera eman dion tailerra NEZak eta Sakanako Mankomunitateak sustatu dute. Honako udalerrri hauek osatzen dute: Altsasu, Arbizu, Arruazu, Bakaiku, Etxarri-Aranatz, Irañeta, Irurtzun, Iturmendi, Lakuntza, Urdiain, Ziordia, Olazti/Olazagutia eta Uharte-Arakilek. Nafarroako Gobernuaren 163.053 euroko diru-laguntza jaso du, eta kopuru horretatik % 50 Europako Gizarte Funtsak kofinantzatu du.

Arbizuko Olatzea hotelean egin den amaiera-ekitaldian ere, NEZko zuzendari-gerente M. Isabel García Malok eta enplegu-tailerreko zuzendari Pello Igoak parte hartu dute; haiekin batera, mankomunitatea osatzen duten udalerrietako ordezkariak eta ikasleek beren prestakuntza-etapan bisitatu dituzten enpresetako ordezkariak.

Enplegu-tailerren helburua 25 urtetik gorako langabeen enplegarritasuna hobetzea da ondoren lan-merkatuan sartzea erraztuko dien espezialitate batean prestakuntza-jasoz. Hala, 6 hilabetez 760 orduko prestakuntza tekniko jaso dute, eta honako modulu hauek barneratzen ditu: birpopulatzeko operazio osagarriak, zuzenketa hidrologikoa, baso-azpiegituren eraikitze eta mantentze-lanen operazioak, basoko tratamenduen operazioak eta basoko landareei izurriteak eta gaitzak eragiten dizkien agenteen kontrola, basoaren birpopulatzeta eta zuzenketa hidrologikoa nahiz basoko zuzenketa, basoko tratamenduak eta zuhaitzak ipurditik moztea zein prozesatzea motozerrarekin. Gainera, 140 orduko prestakuntza osagarria jaso dute ondorengo gaietan: lan-arriskuen prebentzioa, lehen laguntzak mendian, informatika, aukera-berdintasuna eta enpleguaren bilaketa aktiboa.

Prestakuntza-aldi hori benetako praktikarekin konbinatzen da; jardute horretan ikasleek basoko lanak egin dituzte, esate baterako: mendiak garbitu eta sastrakak kentzea, inausketak, garbiketak, landatzeak, itxiturak mantentzea, bideak garbitzea, unadak eta gunek berdeak mantentzea komunalean eta Sakanako Mankomunitatea osatzen duten udaletan.

Prestakuntza-plana eman da "Mendien kontserbazio eta hobekuntzako jardura osagarrien" eta "Basoko Birpopulazioen eta basoko tratamenduen" Profesionaltasun Ziurtagiriak erreferentziatzen hartuz, profesionaltasuneko ziurtagirien Errepertorio Nazionalean barneratzen direnak eta prestakuntzaren kalitatea ziurtatzen dutenak.



Goicoechea lehendakariordea eta García Malo, tailerrari amaiera emateko ekitaldian.